

SEGMENTAZIOA

A S E
B I Z I

GUREKIN ZURE PREMIAK ASE

Aniztasun funtzionalaren barruan adimen aniztasuna, aniztasun fisikoa eta aniztasun sentsoriala bereizten dira, bakoitzak bere ezaugarri espezifikoekin.

Gure Ase Bizi elkarteak **desgaitasun fisikoa** duten pertsonen zuzenduta egongo da. Uste dugu premia handiak dituen kolektiboa dela sexu-heziketari dagokionez, eta bere ezaugarri espezifikoetara egokitutako sexu-jostailuak izateko beharra dutela.

Beti kontuan hartuta pertsona bakoitza desberdina dela eta haien beharrak aldatzen joaten direla adinaren, egoera pertsonalaren, sexu-identitatearen edo dituzten beharren arabera.



Hori dela eta, arreta pertsonalizatua desgaitasun fisikoa duten pertsoneri eskaintzeaz gain, haien senideei, inguruko pertsoneri edo beste pertsona interesdun batzuei ere emango diegu:

- **Profesionalak/beste pertsona interesdun batzuk:**

Aniztasuna fisikoa duten pertsonekin lan egiteko informazioa ondo etorriko zaie ondoren beraiekin lantzeko autonomia bultzatu eta aniztasun fisikoa duten beharrei erantzuteko.

- **Familia:**

Aniztasun fisikoa duten pertsonen zenbait familiek sexu-hezkuntza eta eskubidearen inguruan informazioa behar dute.

- **Bikoteak/inguruko pertsonak**

Bikote moduan lagungarria izan daiteke sexualitatea landu eta hobetzeko.

Aniztasun fisikoa duten pertsonak ere egon beharko lirateke, haiek baitira protagonistak.

